

Euskal Herriko gatazkaren testuinguruan, pertsona asko hil dira hamarkada luzeetako indarkeria eta konfrontazio armatuaren ondorioz. Gure geografian hainbat indarkeria egon dira, eta giza eskubideen urraketa eragin dute; mina eta sufrimendu handia.

Indarkeri zehatz baten biktimek dagokien aitortza ofiziala jaso zuten eta Legeak ematen dizkieten eskubideak erabili ahal izan dituzte. Estatuak eragindako bortxaren biktima gehienontzat ordea, abiapuntua oso da bestelakoa; urte askotako ukapenaren ondoren, egin zigutenaren egia ezartzeko borrokan jarraitzen dugu, heriotza eta giza eskubideen urraketa bakoitza, salbuespenik gabe, ofizialki erroldatu, aitortu eta erreparatu dadin.

Zehazki, poliziaren indarkeriaren, salbuespeneko espetxe-politikaren, eskuin muturraren, gerra zikinaren, torturaren, FOP edo FSErekin izandako ustezko liskarren ondorioz hil zirenei buruz hitz egiten dugu. Izan ere kasu gehiegitan, bertsio ofizialak eraikitzeak poliziaren ekintza justifikatuz, heriotzak naturalizat joz edo hildakoa bere heriotzaren erantzule eginez, benetako krimenak ezkutatzeko balio izan du. Heriotza horietako askoren inguruan gertatutakoaren egia itzalez eta argitu gabeko galderez inguratuta dago oraindik.

Honetaz zerbait badakizue Lizartzan. Duela 25 urte, Ertzaintzak Ina Zeberio Arruabarrena hil zuen Gernikan. Orduko barne-sailburua presaka ibili zen gertaerei buruzko bertsio ofizial bat osatzeko, argudiatuz hilik suertatu zen Ina tiroz jaso omen zuela Ertzaintza.

Ezinbesteko elementua sartu zuen bertsio ofizialean, Lizartzako bizilagunaren heriotzan, Ertzaintzaren balizko erantzukizuna ezabatzeko. Baina argi esan beharra dago, inguruabar hori ez zela inoiz baieztatu ikerketa judizialean praktikaturako frogen bidez, eta Ina hil zutenen unean berarekin zeudenek argi adierazi zuten tarteko inolako arrazoirik gabe tiro egiten lehena, Ertzaintza izan zela. Zirkunstantzia hori frogatzeko elementurik ez izan arren, sailburuak emandako bertsioa, ofizial bilakatu zen.

Guk inoiz ez dugu Bertsio Ofizialekin bat egin, ez hemen ez inon, ez lehen eta ez ondoren. Tamalez gure herri honetan Estatuaren agindupeko talde eta indar armatuek eragindako hildako gehiegi ezagutu ditugu, baita hilketa horiek justifikatzeko asmatutako argudio sinestezinak ere. Hortaz, saihestu ezineko galdera sortzen zaigu, Ertzaintzaren operazio honen benetako helburua ere zalantzan jarri behar dugulako: Ina atxilotu edo hil egin nahi zuten?

Urteak daramatzagu bertsio ofizialen kutxa iluna irekitzeko beharra aldarrikatzen, eta 12/2016 Legearen bidez irekitako ikerketen arabera, aldarrikapen horretarako arrazoi sendoak genituela eta ditugula esan dezakegu. Izan ere, zenbait kasutan agerian geratu den bezala, bertsio ofiziala benetako krimenak ezkutatzeko eraiki zen.

Hala, Josu Mujikaren, Xenki eta Murgiren, Mikel Zabalzaren, Emilio Fernándezen eta beste askoren heriotzak justifikatzen zituzten bertsio ofizialak desmuntatu egin dira, eta bizitzeko eskubidearen urraketa biktima gisa aitortuak. Horiekin batera, beste pertsona asko ere aitortu izan dira, Poliziak, Ertzaintzak, Guardia Zibilak, eskuin muturrak, Triple A-k edo Batallón Vasco Español-ek eragindako giza eskubideen urraketaren biktima gisara.

Beraz, giza eskubideen edozein urraketa jasan duzuenok, horretarako gaitutako aitortza-legearen bidez, babes-eskarira jo dezazuen animatu nahi zaituztegu. Gertatutakoaren egia bidez eskubideak artikulatzen direlako eta kontakizuna ere idazten delako.

Zoritxarrez, Inaren heriotza ez da argitu gabeko itzal edo zirkunstantziak dituen bakarra; zoritxarrez, asko dira bizitzeko eskubidearen urraketak justifikatzen dituzten bertsio ofizialez estalitako kasuak.

Heriotza kasu guzti hauek argitu litzakeen dokumentazioak, Konstituzioaren aurreko lege batek blindatuta jarraitzen du gaur egun. Sekretu ofizialei buruzko Legearen indargabetzea dagoeneko errealitate ez izatea, indarrean dagoen demokraziaren kalitate

eskasaren eta kasu hauek argitzeko borondaterik ezaren beste froga bat da; frankismo garaian, trantsizioan eta ustezko demokrazia honetan gertatutakoak.

Izan ere, trantsizioari, gerra zikinari, Otsailak 23ri, ZEN planari, Navajas txostenari, edota GAL-i buruzko egia argitara aterako litzateke.

Argi dagoena da, lege hau oraindik ere egia jakiteko eskubidea murrizten digun legezko mekanismo bat dela. Era berean, lege honek dagoeneko babesten dituen inpunitatea iraunkortzeko eta giza eskubideen aurkako balizko komisio edo portaera berrien aurrean inpunitate berbera ahalbidetzeko balioko du.

Inpunitate horrek krimen horiek gertatzea ahalbidetzeaz gain, hainbat hamarkadatan betikotzea ahalbidetu du, gutako askorengan "in-justizia espainiarra" bizitako giza tragediaren erantzule ere badenaren uste sendoa sortuz. Izan ere, indarkeriaren, egiaren eta justiziaren monopolioa Estatuan bertan dago. Ez da harrizkoa, beraz, Espainiako Estatuak gatazkaren testuinguruan aplikatzen duen justizia-eredua erabateko desorekakoa izatea, izan ere Estatuko agenteek egindako giza eskubideen urraketa gehienak argitu gabe daude; gure biktimazioaren erantzuleen zigorgabetasuna termino absolutuetan naturalizatu delako; onartu eta normalizatu delako zigor-kodeak eta salbuespen egoerak biktimario sektore bakar bati eragitea.

Eta, jakina, errealitate honek, ezinbestean, kartzela eremuan dagoen korapiloari begiratzera garamatza. Justizia guztientzat berdina izan balitz, egongo litzateke Estatuko bortxari lotutako preso-talde bat, baita ere. Kasu horretan, modu berean helduko al zitzaien gai horri? Edo, aitzitik, munduko beste leku batzuetan gertatu den bezala, hura konpontzeko legezko bide guztiak erabiliko lituzkete?

Guk ez dugu gatazkaren ondorio eta erantzukizun batzuei muzin egiten dien eta beste batzuk betikotzen dituen justizia eredu honetan sinesten; Biktimen eskubideak errespetatuko dituen eta aldi berean, hainbat hamarkadatan indarkeriak eragindako ondorioak gaindituko dituen bizikidetza agertoki batera iristeko beharrari erantzungo dion justizia eredu behar dugu. Bestela, ez gara bizikidetza demokratikoaren esparru integralaren alde ariko, Estatuaren bortxa legitimatzen duen eta erantzule zehatz batzuen inpunitatea indartzen duen garaile eta galtzaileen eskema baten alde baizik.

Elkarbizitza demokratikoaren kontzeptuak, konfrontazio armatuaren ondorioak gainditzea exijitzen du, pertsona guzti guztien eskubide guztiak bermatzea, baina baita ere, izaera politikoa duen gatazkaren arrazoiei heltzea. Izan ere, elkarbizitza demokratiko baten ganean bere burua garatu asmo duen gizarte batek, ezinbestez, bere oraina eta bere etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidea behar du izan.

Onbideratze demokratikoaren kontua da, borondatea, giza eskubideekiko konpromisoa eta pedagogia etikoa eskatzen dituen, ulertzeko, demokrazian pertsona guztien eskubide guztien errespetua eta ahalbidetzea ere agindu etiko gisa eratu behar dela.